



# ANE

Alaine Agirre

erein

**ANE**

JXAN  
dAKA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com);  
91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*Egileak literatur sorkuntza sustatzeko Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren laguntza jaso du liburu hau idazteko.*

*1. argitalpena: 2020ko azaroan*

Azaleko argazkia:  
Aitor Arana

Azalaren diseinua:  
Iturri

Maketazioa:  
Erein

© Alaine Agirre

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-639-9

L. G.: D 1124/2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Alaine Agirre

**ANE**

erein

I  
UDAZKENA

And I've been a fool and I've been blind  
I can never leave the past behind  
I can see no way, I can see no way  
I'm always dragging that horse around.

Our love is pastured such a mournful sound  
Tonight I'm gonna bury that horse in the ground  
So I like to keep my issues strong  
But it's always darkest before the dawn.

FLORENCE AND THE MACHINE, *Shake it out*



# 1

## Botoiak eta bonbak

Txalekoaren botoi bati iltzatuta gelditu zaio Aneri begirada. Botoi marroia da, ertz borobilduna, lodia; ezkutatzeko batere asmorik ez duen botoia, klasikoaren klasikoz bere harrokeriatxoarene onartzen zaiona. ETB2-n larunbat bazkalondoetan botatzen dituzten ia hiru orduko pelikula horietako batetik atere dirudi txalekoak: badakizu, II. Mundu Gerra garaian Oxforden edo Cambridgen (ze inporta du zeinetan) kokatutako pelikula horietan daramaten estiloduna: oihal lodia, berde iluna, bi poltsiko eta botoi lodi, marroi, ertz borobildunak. Azeriaren ehiza, Eskoziako gazteluak, tea kikaratxoetan... rollo horretakoa. Zenbat eta gehiago begiratu botoiari, orduan eta irakaslearen antz handiagoa hartzen dio Anek. Marroia, ertz borobilduna, lodia. Botoi guztietan botoiena. Txaleko hori erosi zuenean existitzen ote ziren ordenagailuak? Hitz egingo zen ordurako aldaketa klimatikoaz? Zapalduta egongo zen ilargia?

Esan zien gurasoei ez zituela enpresa-zientziak egin nahi. Ez zaizkiola gustatzen. Baaai, ulertzen du

zerbait egin behar duela, baina ez hori. Baaaiiii, ikusten du ikasteak aukerak zabaltzen dituela, ikusiko ez du ba... Eta esan nahi duena ez da... Baaaaaaaiiii, baietz, ulertzen du esaten dutena, baina... *Eta zer gertatuko litzateke urtebete atzeratzen badut matrikulazioa, eta bitartean...? Aita, baina... bai, bai, baina... baietz, ama, baina agian ez da hain txarra lehenengo zer egin nahi dudan pentsatzea, eta bien bitartean... Ez, aita, ez litzateke denbora galtzea, balioko lidake... Zertarako? Ba, ama, deskubritzeko zertan nahi dudan aritu... Ezetz, aita, deskubritzeko denbora hartzea ez da... Ama, Maren ere derrigortu egin nahi zuten Medikuntza egitera, baina pianoa egin nahi zuela deskubritu zuen... Ez, aita, bere onerako ez, derrigortu egin nahi zuten... Ulertzen dut, noski, Enpresarialesek irteera onak dauzkala... Eta hori esaten duen bakoitzean barregura etortzen zaio, ikasketak unibertsitarioak eta “*Salida de emergencia*” dioen kartel berdea lotzen dituelako bere buruan; ideien arteko elkarketak zer diren. Agian ez da hain eroa asoziazioa, agian bada unibertsitatara joatea larrialdietako irteera edo ihesaldi bat, kasu batzuetan behintzat; bere kasuan, argi eta garbi.*

Ahaleginak ahalegin, nahiz eta bere denbora, azalpenak, adibideak eskaini, nahiz eta diskurtso emozionalak, arrazionalak eta mota guztietakoak



eman, ez zituen gurasoak konbentzitu. Eta gero esango dute komunikazio asertiboa efikaza dela. Ez beti; ez behintzat bere etxean.

Kontua da bera derrigortu dutela eta joan dela unibertsitatera, motxila karpeta eta boligrafoz beteta; baina, itxurak itxura, ez dute lortu Ane barrutik konbentzitzea. Eta goiz horretan, irakasleak II. Mundu Gerra garaiko txalekoaren poltsikotik oihalezko musuzapi bat atera eta zintz nola egiten duen ikusi duenean, sentitu egin du erabakia. Horrenbeste buelta eman ondoren, pentsatu gabe etorri zaio. Goitik behera bezala, nazien hegazkinetatik Londres gainera eroritako bonba bat legez: karrera utziko du.

Bide batez, pentsatzen jarrita: ez al dira pelikula guzti horiek denak berdinak?

## 2

### Hizketan eta hitz gutxi

–Gauza bat kontatu behar dizut.

–Karrera utzi behar duzula? –galdetu dio galdetu gabe Marenek.

Aspalditik ezagutzen dute elkar; esaten ez direnak entzuteko gaitasuna garatua dute, norberak ikusten ez dituenak besteak sumatzekoa. Hitz gutxi behar dituen adiskidetasun horietako bat da bien artekoa: “Hartuko dugu bat gaur?/ Ok, zazpitan?/ Betiko lekuan” estilokoa. Eta hortxe daude, zazpiak eta zerbezaren bitsa pasata, betiko lekuan, Malandran, larunbatean.

Ane ez da harritu lagunaren irtenaldiarekin, baina galdera aurpegia jarri du, eta keinu horri erantzun dio Marenek:

–Argi ikusten zen, hasieratik –zerbezari tragoxka bat eman eta erantsi du–: hasiera baino lehenagotik, egia esan. Ezagutzen zaituenak badaki Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua –azken hori esaterakoan komatxoak marraztu ditu airean– ez dela zuretzako modukoa.

–Nire gurasoek ez naute ezagutzen orduan.

Bekain bat jaso eta ezpainak tximurtu ditu Marenek, “zer egingo zaio” aurpegia jarriz. Baina kontsolamenduzko esaldi bat eskaini dio gero:

–Ulertuko dute momenturen batean, nireek ere ulertu zuten.

–Kostata –esan dio Anek, eta, zerbezari azken zurruta eginda, edalontziari kolpetxo bat emanetz utzi du barran–. Eta nireei gehiago kostatuko zaie. Ez naiz pianoko promesa bat, ez ditut ikasketak beste zerbaitengatik uzten. Egia esan, ez daukat beste ezer. Ez daukat B planik, ez bete gabeko ametsik, ez interesatzen zaidan beste ikasketarik. Ez dakit zer egin, ez zait ezer okurrizten, *nothing de nothing*.

Aneren diskurtsoa zaparrada-kutsua hasi da hartzen, baina Marenek ez daki zer esan. Kontsolamenduak sinesgarria behar du izan, kontsolamendu izatekotan.

–Topatuko duzu.

Huts egindako kontsolamendu saiakera.

–Baietz ba, ikusiko duzu –erantsi dio Marenek, eta, edalontzi hutsa seinalatuz, beste bat aterako duten galdetu dio, hori ere galdetu gabe.

Besteak baietz buruarekin.

Hitz gutxi. Berez ez da askoz gehiago behar benetako lagunen artean.

–Hau nire kontu. Ez dakizu nolako pisua kendu dudan gainetik!

–Ospatu egin behar dugu. Hemendik aurrera, ez dituzu zure irakasle kasposo horiek aguantatu beharko! Nola deitzen zenion arropa zaharrunoekin doan horri...?

–Churchill?

–Bai, hori! –eta barrez lehertu dira biak.

Hitz gutxi, barre asko.

–Ikusten? Sortzaileegia zara ekonomia ikasteko.

–Edo ganorabakoegia. Baina saiatu naiz nire ikaskideak imitatzen, eta ezin: klase guztietara joaten dira txintxo-txintxo, irakasleak *egun on* esan orduko apunteak hartzen hasita daude, arratsaldez terraza batera joan beharrean partikularretara doaz... nire gurasoek guztiak adoptatuko lituzkete poz-pozik. Eta ni eman, bost euroren truke.

–Bueno, Ane, gogoz estudiatzeak ez du ezer txarrik, gustura bazabiltza.

–Bai, badakit, baina aurreko batean musikaz hitz egiten jarri ginen eta ez zuten Shakiraz gain beste inor ezagutzen. Liburu bat irakurtzen ikusi ninduen batek galdetu zidan ea zertarako irakurtzen dudan.

–Bai, eta ez zenidan esan denak klonak bezala doazela jantzita?

–Bai, *made in Zara* goitik behera. Eta ni, clown baten moduan.

Hitz gutxi, eta barre pila bat.

–Seguru Libek eta Oierrek ez zutela horrelako jende-modurik aurkituko klasean –esan du Anek, inbidia sano batez.

–Bueno, Libe Arte Ederrak ikasten egonda, clown gehiago klonak baino. –Isiltasun bat, zerbeza trago bat, eta erdi kontuz esandako hitzak ondoren–: Bide batez, zer moduz dabil Oier? Nola dago zuen kontu hori?

–*Pasapalabra*. Zu zelan Donostian?

Hitz gutxi behar dira gai baten desbideraketa-  
ren atzean dagoena ulertzeko. Horrekin etsi, eta  
Aneren galderari erantzun dio Marenek:

–Ondo, oso gustura, gogorra izan arren.

–Zure-zurea delako musika.

Hitz gutxi behar dira, isiltasunak deszifratzen ja-  
kiteko.

–Ane, guztiz seguru nago topatuko duzula zeure  
bidea. Deskubrituko duzu zer den egin nahi duzuna.  
Eta hori gertatzen denean, onena izango zara egiten  
duzun horretan, gauza batekin inplikatzeko zaren  
ezerk ezin zaituelako geldiarazi.

Hitz gutxi behar dira, eskerrak benetan ematen  
jakiteko. Eta maitatzeko.